

SEXU ERASOAK EKIDITEKO BEHIN BETIKO GIDA

www.gurenduz.com



SEXU ERASOAK EKIDITEKO BEHIN BETIKO GIDA

SARRERA

Azken urte hauetan esparru publikoetan emakumeek jasotako erasoen zalaketak izugarri areagotu dira.

Arropak, alkohol-mailak eta bizitza erotikoa zalantzan jartzen dute erasotutako emakumeari gertatutakoa.

Hori dela eta, gaur egun bizi dugun arazo sozial honi erantzuteko eta ikuspegi berri bat eskeintzeko, gida hau argitaratzea funtzezkotzat jotzen dugu.

Sexuen arteko topaketa eta elkarbizitza positiboa lortu nahian, emakumeengan fokoa jartzen duten kurtso eta argitalpenak osatzeko asmotan, ikuspegi berri bat eskeini nahi dugu. Gida honetan, eraso sexualei aurre egiteko ardura balizko erasotzaile dagokie. Izan ere, haiek dira erasoaren arduradun bakarrak. SEXU ERASOAK EKIDITEKO BEHIN BETIKO GIDAN jarraibide erabilgarri, praktikoak eta pedagogikoak eskeintzen ditugu. Gida honen erabilpena areagotzeko hainbat hizkuntzetara itzuli dugu.

Espero dugu benetan gida hau sexu erasoak prebenitzeko behin betiko gida izatea eta laguntzea mundu bat eraikitzen non emakume guzti-guztiek kalera bakarrik ateratzeko beldurrik ez duten, ezta sendatzeko zauririk ere.

AZALPEN OHARRA

“GOGORATU” izendapean dagoen puntuan, nabarmendu nahi dugu maskulinitate ereduak aldatzen ari dela eta emakumeen kontrako erasoak ekimen lotsagarriak direla gizoneentzat. Eraso hauek gizentasuna eta gizonen balioa zalantzan jartzen dituzte.

ERREPRODUKZIO ESKUBIDEAK

Baimenduta dago gida honen kopia egitea, osorik edo zati batena, (beti ere) iturriaren aipamena egiten bada.

ESKERRAK ♥

Bukatu baino lehen, eskerrak eman nahi dizkiet eraso sexual bat izan eta gero, haien bizipenak gainditzeko nigan konfiantza jarri duten emakume guztiei. Mila esker ere gida hau itzuli dutenei Bernat, Jen Gomez, Ibon Aresti eta Leyre C.

EGILEA

Ziortza Karranza Ramírez

ERASO SEXUALAK

EKIDITEKO BEHIN BETIKO

7 URRATSAK

1. Norbaitekin **ligatu** nahi baduzu, egizu jolas eta **errespetutik**.
2. Beste pertsonak ez badu jolasean jarraitu nahi, erakutsi ez zarelaz ezgaitu emozionala eta **urrundu** zaitez.
3. Zakila leku bero batean sartu nahi baduzu eta berak ez badu nahi, 15 euroren truke **lataratutako bulba** topa ditzakezu. Eros ezazu bat eta **sormena martxan jarri**.
4. Zure berotasuna kontrolatzeko gai ez bazara eta neska bat erasotzeko gogoia baduzu: **masturba zaitez** leku pribatu batean. Lasaitzen lortzen ez baduzu, eskatu **edallontzi bete izotz** eta bertan zure **zakila sartu baretu arte**. 
5. Mozkortuta dagoen neska bat ikusten baduzu eta bera erasotu nahi baduzu, **alde** egin zonaldetik ahal den eta lasterren eta **112ra deitu** zure arriskuaz jakinarazteko eta zure bila etortzeko.
6. Ez badituzu emakumeak errespetatzen eta kontsumo objektuetzat hartzen badituzu, psikologiako profesional batekin harremanetan jarri zure arazoa konpontzen laguntzeko. Bitartean saiatu kalerara ahal den eta gutxien ateratzen.
7. Arazo hau duen baten bat ezagutzen baduzu, gida hau pasaiozu eta anima ezazu hobetzeko urratsak eman ditzan.



BERRIZTU ZAITEZ!

Sexu eraso batek zure maitatzeko ezintasunaz gain, zure maskulinitate kontzeptu arkaiko, zaharkituta eta okerra agerian uzten ditu.